

Egiaren alde

Nik auzi guztia bertan behera geratu izana nahiago nukeen, aukeran. Beno, aukera-aukeran, 2003ko otsailaren 20ko itxiera eta gertaera negargarriak gertatu ez izana nahiago nuen. Ondorengo atxiloketak eta ziega barruko ustezko tratu txar eta torturak izan ez balira, denontzat hobe, kaltetuentzat ezin hobe. Sei urte luze-luze, “de facto”ko itxiera, iragan ez izana nahiago nuke. Biktimen elkarte batek helegitea jarri izan ez balu, askoz hobeto, fiskaltzak egozpenak behin kenduta, batik bat. Tormentu eta demokraziaren kapitulu ilun hauek ezagutu izan ez bagenitu, askoz hobeto geundeke elkarbizitzan eta orduko Egunkaria esku artean. Baina itxi bazuten, itxi zuten! Larria, oso larria ere, hedabide idatzi bat ixtea, gero.

Orain egiaren ordua da. Nik sakon-sakonean zer dela-eta ixtarazi zuten jakin gura dut. Nik ETArekiko lotura zein eta zenbaterainokoa izan zen jakin beharra daukat. Baita fiskalak zer arraio antzeman zuen ere, bere egozpen nagusia bertan behera uzteko. Errugabe suertatuz gero, zelan kalte ordain daiteke eragindako narrio guztia? Zelan berrezarri ehundik gorako langileren orduko lan eta eskubideak? Estatuaren tresneriak huts egin bazuen, konpondu-edo beharko du zatarkeria hura. Hala izan bedi.

Fabián Laespada.

BAK-eko kidea